

Debagoiena 2030:
GARAPEN
IRAUNKORRERAKO SAREA
2021 JARDUERA





AURKIBIDEA

01

4. orria

SARRERA

1.1. D2030 Garapen Iraunkorrerako Sarea

4. orria

1.2. 2021. urteari gainbegiratua

6. orria

02

7. orria

2021. URTEA:

LAN ARLOEN ARABERAKO PLANGINTZA

2.1. D2030 eskualde eraldaketarako proposamena

8. orria

2.1.1. Esku-hartze fasea: abiapuntuko egitasmoak

10. orria

2.1.2. Energia Trantsizioa

17. orria

2.1.3. Lana eta Inklusioa

20. orria

2.1.4. Komunikazioa eta sentsibilizazioa

22. orria

2.2. Lankidetzazko Gobernantza

24. orria

2.3. Kolaborazio estrategikoak eskualdetik kanpo


27. orria


1.1. D2030 GARAPEN IRAUNKORREKO SAREA



Nortzuk gara?

Debagoieneko askotariko agentez osatutako sarea da (administrazio publikoa, kooperatibak, unibertsitateak, e.a.). Sare irekia gara, egitasmoa garatuz joan ahala askotariko eragileak batu eta inplikatu nahi dituen.





Zertarako?

Debagoienak dituen erronkei (sozialak, ekologikoak...) erantzuna eman eta eskualdearen garapen iraunkorra sustatzeko.

Nola?

Askotariko eragile, metodologia eta ekimenak egitasmo bakarrean uztartuz eta saretuz, elkarrekin definitutako ipar baten norabidean lan eginez. Begirada sistemikoa da egungo erronka konplexuetan eragiteko lehentsitako modua, eta elkarlana eta prozesu komunitarioa haietan eragiteko hautatuko bide nagusiak.

Non?

Debagoienean: Antzuola, Elgeta, Bergara, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Aramaio.

Publikoak: **6**

Kooperatiboak: **11**

Pribatuak: **3**

Hezkuntza: **2**

Herrigintza Antolatua: **6**

Berrikuntza: **4**

Gobernantza: **15**

Finantziazioa: **9**

Zuzendaritza eta
Teknikaritza: **11**

Proiektugintza: **10**



MISIOA

XXI. mendeko erronka globalei erantzun komunitario propio bat emango dien eraldaketa mugimendu bat sustatzea.



BISIOA

Lurraldearen garapen komunitarioan sakondu, 2.050 urterako adimentsua, inklusiboa eta klimatikoki neutroa izango den Debagoiena eraikitzeke.

1.2. 2021. URTEARI GAINBEGIRATUA

Lehen bi urteetan ekimenaren oinarriak finkatzen aritu ostean (lankidetzak akordioaren oinarriak finkatzen, gobernantza eta lan unitateak sortu eta aktibatzen, eskualdearen eraldaketa ereduak bera adostu eta pilotatzen, eskualdeko askotariko herritarren pertzepzioak jasotzen, etab.), hirugarren urtean, 2021ean, ekintzan jarri dugu indarra, eraldaketa eragingo duten proiektuak bultzatzen.

Izan ere, D2030 ekimena eragiteko sortu baita, askotariko erronken aurrean inpaktuzko irtenbideak bilatzeko. Errealitate konplexua bizi dugun momentu historikoa da egungoa, konplexutasun handiko erronkek ezaugarritua: klima aldaketak, digitalizazioa zein erronka sozial berriek, ekonomiak, gizarteak edo horiek zeharkatzen dituzten sistema anitzak (energia, elikadura, mugikortasuna...) birplanteatzeko urgentzia azaleratzen dizkigute. Badakigu, hurrengo urteak kritikoak izango direla sakoneko eraldaketa horiek aktibatzeari begira, eta, horregatik, beharrezkoa da hori sustatzeko bideak urratzen hastea, azkar eta eraginkortasunez.

Testuinguru horri erantzuteko jaio zen D2030 ekimena, eskualdean sakoneko eraldaketa mugimendua sortzeko. Hirugarren urte honetan, bi erronkari eman diogu lehentasuna: eskualdearen energia trantsizioa eta lanaren bidezko inklusioa sustatzeari. Gainera, aurretik martxan ziren beste 13 egitasmoren garapena ere izan dugu esku-artean, arlo anitzetan eman beharreko eraldaketaren gakoak lantzen hasteko eta eragileen arteko elkarlan dinamikak esploratzen hasteko helburuz abiatuak.

Noski, ekintzaren eremuan egin nahi dugun lanak behar du bestelako oinarriak ere: gobernantza ereduak, lankidetzarako baldintzak sortzea, ditugun erronkak zein egiten ari garen lana komunikatzea, konplexutasunari erantzuteko egiten ari garen ahalegina etengabe eta kontzienteki ebaluatu eta hortik ikastea, eskualdeko eragileen saretzea... Honela, zeharkakoak diren arlo gako horietan ere lanean aritu gara aurtengoan ere.

2021aren bukaeran, hasieran ginenak baino gehiago gara, modu baten edo bestean sarera lotuta dauden eragileak.



Bagoaz aurrera

02

2021. URTEA ILDOZ-ILDO

Urteko helburu nagusiak:

1. Eskualdearen eraldaketa eragiteko prozesua sendotzea:
 - Esku-hartze proposamena osatu duten lehenengo proiektuak garatzea: arlo ezberdinetako 13 egitasmo garatu dira, elikadura, energia, basoak, hezkuntza, transformazio industrialak eta ekintzailetasuna, kultura...
 - Eskualdearen trantsizio energetikoa bultzatzeko eskualdeko eragile anitzen artean esku-hartze proposamena diseinatzea, askotariko ekintzez osatua
 - Lana eta inklusioaren erronkari erantzuteko elkarlanetik eskualde prozesua abiatzea
2. Eskualdeko eragileak D2030 ekimenara lotzeko aukerak definitzea eta sortzea
3. Eskualdeko herritarrei egungo erronken inguruko informazioa eman eta sentsibilizazioa lantzea
4. Erronka konplexuen garaiotan, Debagoienaren trantsizio sozio-ekologikoa bultzatzera bideratua egongo den gobernantza ereduaren inguruan hausnartzen eta sakontzen jarraitzea arlo anitzeko eragileekin batera

Helburu horien lanketarako, honako lan ildoak garatu dira:

2021ean jorratutako lan ildoak:

- D2030 eskualde eraldaketarako proposamena
 - Lehen 13 egitasmoz osaturiko esku-hartze proposamena
 - Debagoienaren energia trantsizioa sustatzeko prozesua
 - Lana eta Inklusioa sustatzeko prozesua
 - Komunikazioa eta sentsibilizazioa
- D2030 lankidetzazko gobernantza eta saretzea
 -
- Kolaborazio estrategikoak eskualdetik kanpo



2.1. D2030 ESKUALDE ERALDAKETARAKO PROPOSAMENA

Debagoiena 2030 ekimenaren helburua eskualdearen eraldaketa sustatzea da. Erronka konplexuen garai bati tokitik erantzuna bilatzea du ipar, eta horretarako eskualde prozesuak sustatzea da ekimenaren egitekoa.

Egiteko hori garatzeko, D2030ak konplexutasunaren paradigmatik eta begirada sistemikotik diseinatu du bere eredua. Hona hemen eskualdean eragiteko ikuspegi metodologikoaren irudikapena:





Eredu honetan gakoak dira:

- Eskualde mailako **ikuspegi partekatua** sustatzea
- Eskualdearen trantsizio sozio-ekologikoa sustatzeko beharrezkoa izango den **lankidetzazko gobernantza eredu**a sustatzea
- **Erronken ezagutza sakon eta sistemikoa** lortzea, esplorazio fasearen bidez
- Erronkei erantzuteko eskualdeko **eragile ezberdinen elkarlanetik aukerak identifikatu** eta lantzea, ko-sorkuntza dinamiken bidez
- **Erronka konplexuei inpaktuz erantzutea oinarri duen esku-hartze ikuspegia lantzea**, erronkari bere erpin anitzetan eraginez, elkar-eraginean jardungo duten proiektu sistemak diseinatu eta garatuz.
- Eraldaketarako bidea, **prozesu ez-lineal** gisa ulertzea, aurrez osorik planifika ezina; bidea, beraz, bidea eginez bilatuko dugula onartzea, eta horretarako **esperimentazioa, etengabeko ikasketa eta egokitzea** lan eredura ekartzea. Helmuga markatuko digun iparrorratzaren seinalea lagun izanda, mapa zehatzik ez dugula izango jakitun izatea, eta horrek eskatzen duen kudeaketa eta lan dinamika izatea: esperimentazioa eta ikasketa erdigunean dituen, iteratiboa, behatzailea...

2021. urtean, prozesu eta ekintzaren eremuan 3 lan ardatz nagusi garatu dira:

Debagoienean energia trantsizioa sustatzeko prozesua

Lana eta Inklusioa sustatzeko prozesua

Esku-hartze fasea, abiapuntu-ko egitasmoak: 2020. urtean martxan jarritako egitasmoen garapena

1

2

3

2.1.1. ESKU-HARTZE FASEA: ABIAPUNTUKO EGITASMOAK



D2030 ekimenak 2020. urtean, hainbat arlotan eskualdeak dituen erronketan eragiteko lehen 13 egitasmoak jarri zituen martxan. Lehen proiektu-sistema honen ezaugarri nagusia bere aniztasuna da: energiaren arloan, industriaren trantsizioan, kulturen, elikadura sistemetan, lanaren bidezko inklusioan, basogintzan... D2030a sortzen ari den lankidetzaren testuinguruan eragiteko helburua duten lehen esperientziak izan dira hauek.



DAP (Debagoieneko Antzerki Plataforma)

Debagoieneko arte-eszenikoen eta kultur arlotik egingo den herrigintzarako sostengu izango den plataforma sortzea da helburua.


Sustatzailerak



Birgaitzen

Etxebizitzetako konfort baldintzak hobetu eta CO₂ emisioak murrizteko proiektua.

Sustatzailerak





FV Etxean

Etxebizitza komunitate batean autokontsumorako fotovoltaikoak ezartzeko prozesua abiatuko da prototipo honen bitartez.

Sustatzaileak




ARRASATEKO UDALA



Tantai Baso Jabe Kooperatiba

Proiektuaren helburua baso jabeen (pribatu eta publiko) kooperatiba sortzea da, ustiaketa eredu iraunkorrago bat lortze bidean.

Sustatzaileak



BHR

Metalen tratamendura zuzentzen diren enpresa industrietan, tratamendu, beroketa edo fusiorako erabiltzen diren labe industrialek kanporatzen duten beroa, autokontsumorako energia elektrikoa sortzera bideratzean datza proiektuak.

Sustatzaileak





Ereindajan-Jangelak

Eskualdeko jangelak tokiko produktuekin hornitzeko plataforma sortzea da proiektuaren helburua.

Sustatzaileak



Hazi Berriak

Bazterkeria arriskuan dauden pertsonentzako proiektu integrala.


Sustatzaileak



Hirekin

Hirekin, gizartera zabalik egongo den espazio bat izango da, non enprekin eta beste agente batzuekin ko-kreazio interdisziplinarra, berrikuntza eta ekintzailtza bultzatuko den, trantsizio industrial jasagarri eta justuaren mesedetan.

Sustatzaileak





Ikaskuntza Soluzioak:

Langileen Ikaste prozesuak malguagoak, azkarragoak eta eraginkorragoak egitera bideratzen da proiektua.

Sustatzailerak



Torrebaso

Prototipo honen helburua, Almen guneko eskalan etorkizuneko gizarte iraunkorra nola-koa izan behar den irudikatu eta diseinatzea izango litzateke.

Sustatzailerak



Goiena Eraldatzailea

Goienak komunitatearekin duen harremana indartu nahi du, elkar elikatze horretan jauzi bat eman, sorreratik gizartearekiko duen erantzukizuna indartze aldera.

Sustatzailerak





Talent House

Debagoienera talentua erakartzeko eta bertan mantentzeko azpiegitura, ekipamendu, kultur-jarduera eta zerbitzuen proiektu integrala sortuko da.


Sustatzaileak



Platform coops

Kooperatiben digitalizazio plataformaren bitartez tresna eta eredu berriak sortu gura dira, lan baldintza duin, ekonomiaren hazkunde orekatu eta ingurumenaren alde egiten duten ekimenak bultzatzeko.

Sustatzaileak



HELBURU OROKORRA

Eskualdeak dituen askotariko erronketan eragiten hasteko lehen egitasmoak bultzatzea. Hauen bidez, arlo ezberdinetako eragileen, pertsonen eta esperientzien arteko lankidetzaren dinamika esperimendatzen hastea. Hauekin gainera, eraldaketa esparruen inguruan eskualdeak duen ezagutza eta gaitasuna indartzea.

2021. URTEKO HELBURUAK

1. 2020. urtean definituriko egitasmoak garatzea.
2. Arlo anitzeko proiektu-sistema eskualdearen erronkei aurre egiteko gakoak elkarlanetik identifikatzeko espazio-dinamika bilakatzea.
3. Eskualdeko eragile ezberdinak D2030arekin konektatzea eta sareko mota ezberdinetako eragileei begira ekimenak landu beharreko balio proposamena irudikatzen hastea.

2021. URTEAN GARATU DIREN EKINTZA NAGUSIAK

1. Egitasmo bakoitzaren garapena eta bide hori errazteko bidelaguntza ematea.
2. Proiektu-sistema osatzen duten eragileen eta esperientzien arteko saio kolektiboa garatzea, elkar-ezagutza eta elkarerragina sustatzeko.


LORPENAK

- Eskualdeko arlo ezberdinetako eragileak eta dinamika eskualdearen eraldaketa ipar duen marko partekatu baten baitan lantzea.
- Eskualdeko arlo ezberdinetako eragile eta proiektuen arteko elkar-ezagutza eta lankidetzaren auzerak lantzea.

ERRONKAK

- Eraldaketara begira, esku-hartze sistemikoaren ikuspegian sakontzea eta praktikara ekartzea.
- Ohiko proiektugintzatik, konexioan dauden dinamika sistemen logiketarako zubia egiten hastea eskualdeko arlo anitzeko eragilekin batera.
- Proiektu-sistema eraldaketarako ikasketa kolektiborako espazio-dinamika bilakatzea.
- Ekosistema eta erronken izaera konplexuari balio ekarpen proposamen sendoa eginez erantzutea proiektu-sistemen ikuspegian oinarrituriko eskuhartze proposamenaren bidez.

D2030: ABIAPUNTUKO EGITASMOAK



2.1.2. ENERGIA TRANTSIZIOA



Erregai fosiletan oinarrituriko egungo energia eredua da atmosferara isurtzen ditugun karbono kopuru itzelen sortzaile eta beraz, klima aldaketaren eragile nagusi. Etorkizuneko jendarte iraunkorretara eraldatzeko, energia eredua birpentsatzea beharrezkoa eta urgentea da, horregatik, D2030 ekimenak lehentasunez abiatu du Deba-goienaren trantsizio energetikoa bultzatzeko lankidetzazko eskualde prozesua.

HELBURU OROKORRA

Eskualdearen trantsizio energetikoa sustatzea, eredu iraunkor baterantz urratsak emanaz, garapen komunitarioaren bidetik. Helburu horren konplexutasuna eta hedadura kontuan hartuz, lehen fase batean, D2030etik, eremu hiritarreko (etxebizitza eta eraikinak -publiko zein pribatuak-) energia eredua eraldatzera mugatu dugu prozesuaren irismena.

Helburu hori lantzeko, eskualde prozesu bat sustatzea izango da D2030aren egitekoa: esplorazio, ko-sorkuntza eta esku-hartze proposamena landuz.

2021. URTEKO HELBURUAK

1. Eskualdearen energia sistemaren esplorazio fasea garatzen amaitzea, 2020ko urrian abiatutakoa.
 2. Energiaren erronkan eragiteko, esku-hartze estrategia diseinatzea eskualdeko eragileekin batera eta D2030aren Gobernu Batzordean onartzea.
 3. Esku-hartze proiektuen proposamen tekniko eta ekonomikoak landu eta aktibazio estrategia diseinatzea.
-

2021. URTEAN GARATU DIREN EKINTZA NAGUSIAK

1. Erronkaren esplorazio sakona burutzea (askotariko eragileekin elkarriketak, ikerketen azterketa, eragile eta proiektuen mapatzea...) eta dokumentatzea.
2. Erronkaren inguruko esplorazio eta analisiaren emaitza publikoki aurkeztea eta kontrastatzea eskualdeko edo arloko eragileekin batera. 2021eko martxoaren 3an, covid pandemiak eraginda, online egindako saio kolektiboan.
3. Energiaren erronkari erantzuteko esku-hartze estrategia sistemikoaren egitura proposamenaren lantzea, esplorazioaren emaitzetan oinarrituta.
4. Energiaren erronkari erantzuteko eskualde eragile gakoekin (udalak, mankomunitatea eta arloko eragileak bereziki) proiektu aukerak identifikatzea esku-hartze portfolioa osatzeko.
5. Energiaren eragiteko esku-hartze proposamena uztaillean Gobernu Batzordean aurkeztu, kontrastatu eta onartzea.
6. Esku-hartze proiektuen proposamen tekniko eta ekonomikoak landu eta aktibazio estrategia diseinatzea.


PROIEKTUAK

Martxan daudenak edo jarriko direnak:

- ① Debagoiena eraberritzen
- ② Birgaitzen
- ③ Erregulazio eraldatzailea
- ④ Energia denontzat
- ⑤ Tokiko energia berriztagarrien laborategia
- ⑥ Ikastetxe-klik
- ⑦ DG aukera energetikoak
- ⑧ Energia adierazleak

Oraingoz martxan ez daudenak:

- ⑨ Herri txikien berokuntza
- ⑩ Energia bulegoa
- ⑪ Etxe-klik
- ⑫ Kultura trantsizio energetikorako bidelagun



LORPENAK

- Eragile ezberdinak (publikoak eta espezializatuak bereziki) prozesuan inplikatzeari.
- 8 lan ildotan garatuko den esku-hartze proposamena diseinatzea eragileekin batera.
- Eskualdeko herri guztietan eragingo duen esku-hartze proposamena diseinatzea.
- Erronkaren ikuspegi sistemikotik eragiteko lehen esperientzia praktikoa Debagoienean garatzea.

ERRONKAK

- Eskualde mailako ikuspegi partekatu sendoa eraikitzea trantsizio energetikoaren inguruan.
- Eskualdeko eragileen artean konfiantza maila handitzea eta elkarlaneko dinamikak sortzea.
- Anbizio eta eskala handiko proiektuak bultzatzeko baldintzak sortzea (ezagutza, ikuspegia, motibazioa, konfiantza...).
- Kudeaketa prozesu sistematizatua definitzea.
- Ekintzatik eraldaketarako gakoak diren ikasketak atera eta transferentzia egitea.

INFORMAZIO GEHIAGO

Energiaren esplorazioaren analisi dokumentua (A)


1. **Energian eragiteko esku-hartze proposamena (B).**
2. Energia trantsizioarekin lotutako ikus-entzunezko eta prentsa agerraldiak:

Ikus-entzunezkoak:

- Nolakoa izan da Debagoieneko trantsizio energetikoaren erronka lantzeko prozesua? (C).
- Zertan datza Debagoieneko trantsizio energetikoaren azpi erronka bakoitza? (D).
- Trantsizio energetikoaren erronka Debagoienean (E).
- Martxoak 3ko saio kolektiborako prentsa **deialdia** (F).
- Aritz Ameztegi (Energia prozesuaren koordinatzailea) elkarrizketa: "Trantsizio energetikoan herritarrak bereganatu du aldaketaren beharraren ideia, baina ez dago bere lehentasunetan".

Idatzizko agerraldiak:

- Diario Vasco-ko **artikulua** (G): Debagoiena 2030 identifica las claves para impulsar la transición energética de la comarca.
- Tu Lankide **artikulua** (H): Trantsizio energetikoan eragiteko gakoak identifikatu ditu Debagoiena 2030 ekimenak.
- Goiena-n **artikulua** (I): Debagoiena 2030 ekimenak trantsizio energetikoan eragiteko gakoak identifikatu ditu.
- Enrique Monasteriori **elkarrizketa** (J) Goienan: Enrique Monasterio: "2050ean sektore elektrikoan sortuko den energiaren %100 izango da berriztagarria".



2.1.3. LANA ETA INKLUSIOA



D2030aren bisioak Debagoiena Inklusiboaren ideia barnebiltzen du. Etorkizun iraunkor batek, sozialki ere hala izan behar du, inor baztertu edo atzean utziko ez duena, eta pertsonen arteko berdintasuna izango duena aspirazio gisa.

Kualifikazio baxuko lanpostuen desagertzea ezaugarritutako testuinguru batean, bereziki arduratzen gaitu lan merkatuan tokia aurkitzeko zailtasunak izan ditzaketen gizarte sektoreen inklusioak, lana baita, hezkuntzarekin batera, inklusiorako palankarik eraginkorrena. Horregatik, 2021. urtean, erronka horri erantzuteko lankidetzazko prozesua abiatu dugu eskualdean, egun eskusio egoeran dauden pertsonen laneratzeko aukerak sortzea izango duena helmuga.

HELBURU OROKORRA

Debagoienean laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonen formazioa zein laneratzeko aukerak sustatzea, eta eremu hauetan eredu inklusibo eta duinak bultzatzea.

Helburu hori lantzeko, eskualde prozesu bat sustatzea izango da D2030aren egitekoa: esplorazio, ko-sorkuntza eta portfolio ikuspegian oinarrituriko esku-hartze proposamena landuz.

2021. URTEKO HELBURUAK

1. Erronka honi erantzuteko bisioa formulatzea.
 2. Erronkaren inguruko aurre-esplorazioa egitea, D2030etik landu nahi den fokua finkatzeko.
 3. Erronkaren inguruan eta finkaturiko fokua kontuan hartuta, esplorazio fasea diseinatzea eta garatzen hastea.
-

2021. URTEAN GARATU DIREN EKINTZA NAGUSIAK

1. Erronka honi erantzuteko bisioa formulatzea.
2. Aurre-esplorazio fasean:
 - a. Kokapena:
 - i. Debagoieneko gizarteratze eta laneratze sareak (aurrerantzean DGLS) egindako diagnostikoaren analisia.
 - b. Ezaugarritzea:
 - i. Bestelako iturriak: Eragileei eta Oarsoaldeako Garapen Agentziari elkarrizketak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren estrategiaren eta bestelako dokumentuen azterketa.
 - ii. Datu kuantitatiboak: Langabezia eta sektorekako datu eguneratuen azterketa.
 - iii. Sektoreen prospektiba: Sektoreen bilakaera prospektiboaren azterketa.
 - c. Ondorioak:
 - i. Analizatutako informazioan oinarrituta, gure esku-hartzearen mugatzea.
 - d. Emaitza:
 - i. Fokua finkatzea: Enpleagarritasun sailkapenaren araberako 3. taldean zentratzea + 5 sektore ekonomiko hautatzea (ostalaritza, industria, enplegu zuria, enplegu berdea, eraikuntza).
 - ii. Prozesua eta emaitza dokumentatzea.
3. Esplorazio fasea abiatu, ildo hauen bidez (2022an jarraipena emango zaio fase honi):
 - a. Fasearen diseinua: prozesuaren urrats nagusiak, iturriak, analisi momentuak eta parte-hartzaileak definitu eta tresnak sortu.
 - b. Sektoreetan sakondu: definitutako sektoreen inguruko beharrak eta aukerak identifikatzeko azterketa egin, bai dokumentu zein elkarrizketa ezberdinen bidez.
 - c. Hezkuntzan sakondu: formazioari dagokionez, dagoen eskaintza, zentroek zein erabiltzaileek dituzten beharrak eta egon daitezkeen aukera posibleak identifikatzeko azterketa.
 - d. Hartzaile posibleak ezaugarritu eta hauen beharretan, zailtasunetan eta aukeretan sakondu.
 - e. Kasu inspiragarriak: Lana eta Inklusioaren eremuan egon daitezkeen bertako zein beste herrialde batzuetako kasu/proiektu arrakastatsuen identifikazio eta azterketa prozesuarentzako inspirazio iturri gisa.

LORPENAK

- Erronka konplexu honi erantzuteko D2030ak duen bisioa eta landuko duen fokua zehaztea.
- Arlo eta izaera ezberdinetako eragileak prozesura konektatzea.
- Aurrera begirako bide-orria zehaztea.

ERRONKAK

- Aurrera begirako bide-orria eremuko eragile ezberdinekin partekatuz elkarrekin adostea eta konprometitzea.
- Arlo ekonomikoko eragileak prozesuarekin konprometitzea.

INFORMAZIO GEHIAGO

Lana eta inklusioa, aurre-esplorazioaren aurkezpena (A).

(A)



2.1.4. KOMUNIKAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA



HELBURU OROKORRA

Komunikazioa Debagoiena 2030en zeharkako ardatzetako bat da, eta eraldaketa-prozesuaren eta, barneko nahiz kanpoko publikoen (eragileak, herritarak, etab.) arteko lotura nagusietako bat da. Konexioa ez da soilik informatiboa, elkarrikitza eta atzeraketa-eragina etengabea bilatzen dira eragile anitzeko testuinguruan, horrela eraldaketarako komunikazio-estrategia bihurtuz. Horregatik guztiagatik, komunikazio ekintzak, ekimen orokorrean komunikatu (testuingurua, misioa, ikuspegia, sareko kideak...), eta lortu nahi den inpaktuaren bila, sortu eta artikulatzen diren prozesu, proiektu, elkarrikitza eta ekimen eraldatzaile eta emaitzak hedatzera bideratuta daude.

2021. URTEKO HELBURUAK

1. Debagoiena 2030 egitasmoa ezagutzera ematea: egitasmoa aurkeztu, nobedadeak komunikatu, ...
2. Sarea eta bere kideak bistaratzea eta lankidetzaren beharra komunikatzea. Norabide berdinean barne sarea ehuntzen laguntzea.
3. Erronken prozesuak, esku-hartze proposamena edota emaitzak komunikatzen hastea.
4. Debagoiena 2030en bisioarekin konektatuta dauden eskualdeko ikuspegi, egitasmo eta praktika eraldatzaileak balioan jarri eta gizarteratzea.

2021. URTEAN GARATU DIREN EKINTZA NAGUSIAK

Komunikazioko estrategia eta ekintzak honako lau ildoetan banatzen dira, azpikoak ekintza eta azpi-ildo nabarmenenak izanik:

- Komunikazio orokorra
 - Kanal eta bitarteko orokorrak elikatzea: webgunea, sare sozialak, aurkezpen euskarriak, buletina, ...
 - Aldizkariaren argitalpena: 29.000 ale Debagoieneko etxeetara + digitala (2021eko maiatza-ekaina).
 - Komunikabideen kudeaketa edo prentsa bulego funtzioa ikasturte osoan zehar notizia, ekintza eta abarren komunikaziorako.

- Sarea
 - Sarekideei elkarriketak (urte osoan zehar): D2030en kanal propioak + Goiena (digitala, papera).
 - Sarekideen barne zein kanpo komunikazioan laguntza edo ekarpena.
- Erronkak, prozesuak eta emaitzak
 - Abiapuntuko egitasmoen aurkezpen bideoak (2020ko abendua-2021eko apirila).
 - Trantsizio Energetikoaren kokapena eta prozesua (2021eko martxo).
 - 2020ko portfolio saioa (2021eko uztaila).
- Debagoiena Eraldatzen
 - Erreportaje sorta (urte osoan zehar): D2030en kanal propioak + Goiena (telebista, digitala, Puntua).

LORPENAK

- Debagoiena 2030 egitasmoa eskualdeko mapan kokatzen hastea.
- Bisio orokorra jarduerarekin eta lehenengo emaitzekin josteko abiapuntuko saiakera.
- Debagoieneko eragile eta norbanako ezberdinak, erronken inguruan dauzkaten proiektu, esperientzia eta ikuspegiak partekatzeko inplikatzeara.

ERRONKAK

- Kontakizun argia, ulertteraza eta adostua lortzea.
- Subjektu, rol eta marken kudeaketa egokia egitea.
- Ikuspegi, ildo eta jardura ezberdinen jostintza eta koherentzia sortzea.
- Datozen hilabeteetan gauzatzeko diren esku-hartze proposamen, proiektu eta emaitzen komunikazioa.
- Publiko ez euskaldunera heltzea (Debagoienaren %38a gutxienez).
- Debagoienean eragina duten baina eskualdez gaindikoa diren komunikabideetara heltzea.

INFORMAZIO GEHIAGO

- Debagoiena 2030 **webgunea** (A).
- Sare sozialak: **Instagram** (B), **Twitter** (C), **Youtube** (D).
- 2021eko **urteko aldizkaria** (E).
- Debagoiena Eraldatzen **ikus-entzunezko erreportajeak** (F).
- Prototipoen **aurkezpen bideoak** (G).

(A)



(B)



(C)



(D)



(E)



(F)



(G)



2.2. D2030 LANKIDETZAZKO GOBERNANTZA

XXI. mendeko testuinguru konplexuak lurraldeak eta hauen gobernantza ereduak berrikusteko beharra gero eta agerikoago egiten du. Hamarkada luzeetan lurraldetan garatu diren garapen dinamikien ezaugarriek gizarte eredu iraunkorretara urgentziaz eman beharreko transformazio sakona egitera begira muga nabarmenak dituzte. Hurrengo urteetan baina, ezinbestean asmatu beharko dugu jendarte gisa energia eredu eraldatu, industria trantsizioa bultzatu edo jendarte inklusiboak eraikitze nola eman. Horrek, bai ala bai, lurraldeen gobernantza ereduak birplanteatzera eta eredu kolaboratiboagoak sustatzera eraman behar gaitu.

Debagoiena 2030 ekimenak, funtsean, eskualdearen garapen iraunkorra bultzatzera begirako lankidetzazko gobernantza eredu berri bat izan gura du; arlo anitzeko eragileek, elkarrekin, eskualdea iraunkortasunerantz eramango duten eskualde dinamika eraldatzailea. Horretarako, proiektu espezifikoak bultzatzeaz gainera, beharrezkoa da eragile eta sektoreen artean harreman eta elkarrekin dinamikak ere eraldatzea, etorkizunaz elkarrekin hausnartu eta bidea nola egin erabakitze espazio eta dinamika berriak bilatzea. Eta horixe da D2030aren helburu nagusia eraldaketarako ekintza sustatzeaz gainera.

- D2030 Gobernu Batzordea.
- Lankidetzazko gobernantza eskualdearen trantsizio sozio-ekologikoa bultzatzeko.
- D2030 ezaugarritze prozesua.
- Sarea ehunduz.



HELBURU OROKORRA

Debagoiena eskualdeak garapen eta bizi eredu iraunkorrera egin beharreko sakoneko eraldaketa bultzatzea ahalbidetuko duen eskualde mailako lankidetzazko gobernantza eredua sustatzea, arlo ezberdinetako eragileak (publikoak, kooperatibak, pribatuak, hezkuntzakoak, herrigintzakoak...) elkarrekin partekatuko duten bisio eta lan dinamika marko bat eraikiz.

2021. URTEKO HELBURUAK

1. Eskualdean lankidetzaz oinarri izango duten gobernantza eredua bultzatzeko sortu den Gobernu Batzordearen dinamika kontsolidatzea, D2030 eskualde prozesuaren erabakigune estrategiko gisa. Testuinguru honetan, Gobernu Batzordea osatzen duten kideen, bereziki eragile publikoen, inplikazioa areagotzea.
2. D2030etik jorratuko diren lan eremuen bidez, eskualdean arlo anitzeko eragileak sarearekin konektatzea, energia eta lana eta inklusioa bereziki.
3. Ekimenaren etorkizunaren inguruko hausnarketa egiteko prozesu proposamena adostea gobernantza eta erakundetzaren ikuspegitik.
4. D2030ak bere egiten duen garapen paradigmaten gaineko hausnarketa, definizio eta ezaugarritzea garatzea, D2030an inplikaturik dauden eragileen bitartez.

2021. URTEAN GARATU DIREN EKINTZA NAGUSIAK

1. Gobernu Batzordea 4 alditan batu da. Hona hemen landutako gaiak eta hartutako erabakiak:
 - 2021ko urtarrilak 19an:
 - Gobernantzaren inguruan 2020ko udazkenean egindako entzute sakonaren inguruko emaitzen azterketa eta interpretazio kolektiboa.
 - 2021eko kudeaketa planaren onarpena.
 - D2030 Etorkizuna Eraikiz-en xertatzeko erabakia hartzea.
 - 2021eko apirilak 21ean:
 - Energia eragin eremua: Esplorazioaren emaitza eta aurrera begirako ildoen lanketa eta onarpena.
 - Inklusioa eragin eremua: Foku proposamena eta esploraziorako diseinuaren aurkezpena eta onarpena.
 - Komunikazioa: 2020 urteko memoriaren aurkezpena eta onarpena.
 - 2021eko uztailak 23an:
 - D2030aren ibilbidearen eta egungo egoeraren analisiaren aurkezpena eta balorazioaren lanketa.
 - Gobernantza sistemaren definiziorako prozesua: aurkezpena, talde-contrastea eta proposamenaren onarpena.
 - Energia portfolioaren aurkezpena, talde analisia eta onarpena.
 - 2021eko urriak 20an:
 - Gobernantza ereduaren lanketarako prozesu proposamenaren aurkezpena, kontrastea eta onarpena.
 - Energia eta lana eta inklusioa eremuen lanketaren deskargua.
 - Egitasmoen garapen egoeraren deskargua.
2. Erronka eremuekin lotutako prozesuen garapenerako fase ezberdinetan eta finantzazioarekin lotuta, Gobernu Batzordeko parte diren eragile publikoekin beraien inplikazioa sakontzeko elkarriketak eta lanketak egitea.
3. Erronka eremuekin lotutako prozesuen garapenerako faseetan eskualdeko eragileak inplikatzeko sareratzea lana egitea eta eskualdeko hainbat kooperatibekin harremanak sortzea eta ekimenarekin kolaboratzeko aukerak esploratzea.

4. Bergaran, kolaborazio publiko-komunitarioa inplementatzeko sortu den Ehundu ekimenaren sustapenerako lankidetzaz sarera atxikitzea
- Eskualdearen trantsiziorako gobernantza ereduaren lanketarako prozesua egitea adostea
 - D2030 ekimenak bultzatuko duen garapen eredu ezaugarritzeko bi mintegi garatzea:
(01 mintegia) lurralde garapen eredu berritzaileak.
(02 mintegia) Gobernantza, lankidetzaz publiko-pribatua eta kapital soziala.

LORPENAK

- Gobernu Batzordearen dinamikaren kontsolidazioa.
- Gobernantzan parte hartzen duten eragileen inplikazioan sakontzea: finantzazioa, prozesuetan parte hartzea...
- Eskualde mailan lankidetzazko gobernantza ereduaren lanketan sakontzeko baldintzak eta baimena sortzea.
- Bergarako eta Oñatiko Udalak ekimenaren finantzazioan inplikatzeko, urteko ekarpen finko bat egitea lortzea.
- Eskualdeko hainbat eragile energiaren prozesuan eta lana eta inklusioaren prozesuan inplikatzeko.
- Eskualdeko hainbat kooperatibek ekimena finantzatzeko akordioa lortzea.

ERRONKAK

- Eragileen atxikimendua eta inplikazioa areagotzea.
- Eskualde proiektuaren estrategikotasunaren inguruan ikuspegi partekatua sendotzea.
- Lankidetzazko gobernantzaren inguruan eskualdeak nahi eta behar duen egitura eta dinamika definitzea.

INFORMAZIO GEHIAGO

- (01 mintegia) Lurralde garapen eredu berritzaileak. **Saioko lehen zatiko hitzaldia. Andoni Eizagirre (A).**
- (02 mintegia) Gobernantza, lankidetzaz publiko-pribatua eta kapital soziala. **Xabier Barandiaranen hitzartzea (B).**

(A)



(B)



2.3. KOLABORAZIO ESTRATEGIKOAK ESKUALDETIK KANPO

D2030 eskualde ekimena sendotzeko barrura begira egiten den ahaleginaz gainera, kanpora begirako zubiak lantzea ere beharrezkoa da. Debagoienan bezala, beste eskualde edo lurralde eskaletan erronkei aurre egiteko dinamikak eta ikuskerak abian dira eta ekosistema zabalago horretan ere parte aktibo izatea beharrezkoa da, egungo erronka konplexuen aurrean ezagutza zein esperientzia partekatu eta eskualde garapenerako aukerak sortzeko landu beharreko arloa da hau ere.

2021. URTEKO HELBURUAK

- Gipuzkoako Foru Aldundiak gidatuta lurraldean garatuko den Deep Demo prozesuan parte hartzea eta bertatik ikastea.
- D2030a eskualdean egiten ari den lana lurralde mailan ematen ari diren dinamikek estu alineatzea.
- Euskal Herrian zein Europa mailan sakoneko eraldaketan diharduten eragile eta dinamikek loturak lantzea.

2021. URTEAN GARATU DIREN EKINTZA NAGUSIAK

- Gipuzkoa maila, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatuta eta Climate KIC-ekin batera garatzen ari den Deep Demo prozesuan eta talde motorean parte hartu.
- Goierri eskualdean garatzen ari diren eskualdeko lankidetzazko gobernantzari loturiko prozesuarekin elkar-lana sortzea.

LORPENAK

- Gipuzkoako prozesua D2030en eredu eta esperientziatik aberastu.
- Gipuzkoako prozesutik D2030 ekimena aberastu.

ERRONKAK

- D2030 ekimena Gipuzkoan sortzen ari den trantsiziorako markoan posizionatzea, esperimentazio aurreratu eskualde gisa.
- Lurraldean eta haratago diharduten irautasunerantzako dinamikek lankidetzaz aukera sortzea.



